


NIRE UZTAPIDE

PAKO ARISTI



Nire Uztapide

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra

(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com;

91 702 19 70 / 93 272 04 47)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2022ko martxoan

Azaleko irudia:

Jon Zabaleta

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2022

ISBN: 978-84-9109-798-3

L. G.: D 272-2022

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-posta: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45 Zarautz

T 943 835 008

e-posta: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Nire Uztapide

Pako Aristi

*Irudiak:
Jon Zabaleta*

*Eskerrik beroenak Jose Kruz Ezeiza «Kaxka»ri, bera izan
baitzen, hainbat omenalditan bertsolaria kantatu ezinik
geratu zenean, Uztapideren ahotsa.
Eta Manuel Lasarteri, Uztapide gogoan liburua
idazteagatik. Hori izan da, Uztapideren prosazko obrarekin
batera, liburu honen oinarria.*

NIRE, ZURE, GURE UZTAPIDE

Lagunak gogoan du, eta maiz kontatu dit, Zestoako gazte batzuk udaletxera sartu zirenekoa, eta nola, horman dagoen erretratuari begira, batek, xano-xano, adin horretan bezatu gabe egon ohi denaren berehalakotasunaz, galdetu zuen: «Zein da *viejo* hori?».

Pasadizo bat besterik ez da, eta egia da albotik hamalau urte inguruko gazte haietako batek «Uztapide, motel!» erantzun ziola, baina pasadizoak, salbuespenak salbuespen, egoera orokor baten adierazle izan ohi dira maiz. Eta arestiko hori halakoa delakoan nago. Euskal kulturako izen handi bat, Bertsolari Txapelketa Nagusia hiru aldiz irabazitakoa, ezezagun bihurtua bere jaioterrian; eta ezezagunago, bertso giroetatik kanpo, gure geografiako bazter gehienetan, gure kulturaren erreferente sakonak izan diren beste pertsonaia asko eta asko bezala, tamalez. Garai digitalean bere historiaren ezagutzari eutsi ezin dion herri bihurtu baikara, gure identitatearen bizkarrezur behar lukeen historia politiko eta kulturalaren transmisioa bermatu ezinik dabilena.

Horretara dator liburu honen ekarpena, Zestoan gutxienez gazteei (eta haiekin bizi diren helduei, bide batez) Uztapide nor zen agertzera. Baina Euskal Herri osoan kantatu zuen gizona Euskal Herri osoari ere eskaini nahi genion, eta hargatik zabal-kunde nazionala eman nahi izan diogu, Erein argitaletxearen bitartez. Denen esku egon behar duelako denentzat kantatu zuen gizonaren biografia nobelatu honek.

Idea Joxean Agirrerena izan zen, beste ideia asko bezala; berak sortu zuen ‘Bertsolari’ aldizkari gogoangarria ere. Asmoa zen hainbat bertsolari esanguratsuren biografiak nobela gisa eskaintzea eskoletan, eta egitasmo berean idatzi zuten Koldo Izagirrek eta Joxean Agirrek beste nobela bana, Fernando Amezketarrari eskainia lehenak, Txirritari bigarrenak. Asmo ederra zen. Guk konplitu genuen sormenaren arloarekin. Baina asmoak bazuen bigarren ibilbide bat: liburuok hezkuntzan sartzea, txertatzea, zabal-kundea ematea, ikasleen eskuetan joko eman zezaten. Asmo ona, baina agian gure kultur eta hezkuntza sistemak elikatzen dituzten erakundeak ez daudelako ongi koordinatuak, edo ez daukatelako norabide berbera aberastuko lukeen estrategia partekaturik, asmoaren bigarren zatiak huts egin zuen, neurri batean. Maiz nozitzen dugun kondena iritsi zitzaigun, neurri batean: idatzi bai, irakurri ez. Idatzi bai, idazten dugu, baina norentzat? Hori sentitu ez duen euskal idazlerik ez da egongo. Eta, argitalpen honekin, frustrazio hori sendatzeko bidea jarri du Zestoako Udalak, neurri batean. Neurri eder batean.



*Uztapide eta Basarri,
Zaldibian.*



*Jose Kruz Ezeiza Uztapiderekin,
Lasturren, 1982an bertsolariari
egin zioten omenaldian.*



*Uztapideren omenaldia, Zegaman, 1981ean. Mahaian, haren ondoan,
Jose Kruz Ezeiza. Trikitilariak: Bingen Zupiria pandero-jotzaile,
eta Miren Etxaniz soinu txikiarekin.*

Esku artean duzuen liburu hau 2000. urte borobilean argitaratu zen. Geroztik, igaro da denbora puska bat, eraldatu da mundua eta eraldatu gure herria, ez beti hobera. Baina jarraitzen dugu bizirik, bizi nahian, eta herriaren taupadari bizirik eutsi nahian, eta liburu batentzat ere berrargitalpena bigarren bizitza bat da. Bestela, hor egongo zen, ia agortuta, baztertuta, Zestoan ia inork haren berririk ez zuela, ezta Uztapide beraren familia-koen artean ere.

Liburua Uztapideren bizitza da, baina nobela bat da; izan ere, zein bizitza ez da nobela bat! Liburuan, dena da benetakoa, baina fikzio zipriztinak sartu ditut istorio baten tankera har zezan. Pasarte guztiak berak Auspoan idatzitako liburuetatik atera ditut: *Lengo egunak gogoan* eta *Sasoia joan da gero*, ahaztu gabe Manuel Lasartek idatzi zuen *Uztapide gogoan*. Eta, narratzaile gisa, Oiartzungo Jose Kruz Ezeiza «Kaxka» baliatu dut, beste izen batekin. Berak kantatu zituen, Uztapide bere bizitzaren amaieran ahotsik gabe geratu zenean, bertsolariak omenaldien esker on gisa idatzitako bertsoak, hamahiru urte zituelarik.

Osagarri horiekin, ahal nuen libururik txukunena eta interresgarriena idazten saiatu nintzen. Bertsozale Elkartearen enkargua ez zen, niretzat, enkargua izan, opari bat baizik, aukera bat neure herriari eta haren historian distira egin duten pertsonailetako bati diedan maitasunean sakontzeko.

Maitasunik gabe zaila baita ondo idaztea; eta, halere, baztuetan, ez da erraza izaten. Maitasunik gabe dena da zailagoa, baina maitatzea guztiz ezinezkoa da ezagutzarik ez badago,

gure pertsonaiak, historiako pasarteak, aurrekoen ekintzak eta esanak ezagutzen ez baditugu. Horrek guztiak sendotasuna ematen diolako pertsona bati, sendotasuna bere sustraiekin duen harremanari.

Liburuari goxo egotea gustatzen zaio irakurlearen eskuetan, haren begiek dasta dezatela. Hitzek muxuen ordezeko izatea dute amets; eraman ditzala irakurleak berekin ohera, edo lorategi batera, edo itsasertzera. Liburua bidaiatzeko egina izan zen; horren truke, berak bidaia ederrak eskainiko dizkio zure irudimenari. Eta, egokitu zaizun mundua zertxobait hobeto konprenitzen laguntzen badizu, zure herria zertxobait gehiago maitatzen, helburua betea izango da.

Nire Uztapide idatzi nuenean neukan helburu huraxe bera.

1

Kaixo. Joseba Martiarena naiz, baina horrek ez dio axolarik. Hiruzpalau kapitulu irakurri orduko ez zarete nire izenarekin gogoratuko. Ez dut horretarako idazten. Oiartzunen jaio nintzen, duela 33 urte, eta presaka bizi naiz, mundu guztia bezala. Goizeko sei eta erdietan lanera joateko jaikitzen naizenetik gaueko hamaiketan leher eginda oheratu arte, beti zerbaiten zereginean joaten zait eguna. Edota buruari bueltak ematen, egiteko dauzkadan guztiak gogoratu nahian.

Hau da bizimodua! Edo, agian, galdera bihurtu behar nuke etsipenezko esaldi hori: hau bizimodua al da? Ez da gauza bera, konturatu zinetenez.

Egunaren orduak ez zaizkigu nahiko gainean hartu ditugun konpromisoak betetzeko: lan egin, haurrak eskolatik ekarri, autoa konpontzera eraman, banketxera bisita egin, medikua-rengana, amona dialisia egitera eraman, ordu erdiko footing saioa, erosketak egin... Zer esango dizuet, zuek ere antzera ibiliko zarete, ikasketak direla, apunteak, azterketak, ingelesa, futbito taldea...

Agobioa ez da lagun ona bizitzeko. Zenbat egunetan ote dut egunkaria irakurri gabe utzi, zenbat gauetan ote dut pelikula on baten erdian lo hartu!

Itota bizi naiz. Horregatik, idaztea erabaki dut. Horixe da presari aurka egiteko bururatzen zaidan biderik onena. Idazteak patxada eskatzen baitu, gela barruan itxita geratzea, mundutik bakartzea, zu eta orria soilik existituko bazinete bezala. Arnasa hartzeko, idatzi egingo dut. Eta une hori inork kenduko ez didan altxorra izango da nire bizitzan. Ahantz daitezela nitaz idazten ari naizenean.

Eta zuek ere horrela irakurtzea espero dut nire liburu hau: orriz orri, patxadan, munduan liburua eta zuek beste inor egongo ez balitz bezala. Eta une horretan inoren mutur sartzerik ez duzuela onartuko ziur nago. Irakurtzea ere arnasa sakon hartzea delako, eta, istorioa ona bada, usain gozoa hartuko diozue begien aurrean pasatzen doazen hitzoi, zapore ezta bakardadean igarotako ordubeteari.

Gainera, presa batere gustatzen ez zitzaion gizon bati buruz hitz egingo dizuet. Eta hari errespeturik ez gordetzea litzateke liburu hau sukaldean ontzi artean edo telebistako iragarkien erdian idazten (edota irakurtzen) hastea.

Hau da presaren aurkako nire protesta. Egizue, arren, bat nirekin, bakarrik ez baikara deus ere bizitza honetan!

2

Manuel Olaizola Urbieta 1909an jaio zen, Uztapide baserrian. Hortik geratu zitzaion Uztapide izena.

Gerra Zibilaren aurretik, Txirritarekin bertsoan aritu zen, 1936an. Gerraondoan, bertsolaritzarako egoerarik onena ez bazen ere, Basarri eta Lasarterekin batera bizirik eutsi zion bertsolaritzari. Belaunaldien arteko zubia izan zen. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa hiru aldiz irabazi zuen: 1962an, 1965ean eta 1967an. Oiartzunen hil zen, 1983an.

Hori diote entziklopediek Uztapide izena begiratzen baduzue. Gauza batean ez dira ados jarriko: Uztapide baserria Endoia auzoan zegoen; batzuek diote Zestoako auzoa dela, eta beste batzuek Debakoa. Betiko kontua Euskal Herrian: batek esanda-koari kontra egin behar besteak.

Baina hau ez da entziklopedia bat. Entziklopediek eskola usaina dute; lan bat egiteko, azterketa bat prestatzeko edo ikerketa bat borobiltzeko balio dezakete, ez beste ezertarako.

Informazioa ematen dute, laburlabur eta hitz neutroekin, inongo sentimendurik sorrarazi gabe.

Bizitza ez da horrelakoa, ordea: gauza beroa da, kontrola ezina, sufriarazten diguna maiz, gozarazi ere bai sarritan. Nik Uztapide bizirik ezagutu nuen, harremana izan nuen berarekin, eta horregatik ezin dut haren figura gure mahai gaineko fitxa labur bilakatu. Hark zeukan izaera ez da kabitzen entziklopedia batean; haren ibilerak, kontatuta ere, ez zaizu iruditzen merezitako neurrian agertu dituzunik.

Nik bizitzaz hitz egin nahi dizuet, baserrian jaiotako gizon xume eta umil bat Euskal Herri osoan zergatik egin zen ezagun eta maitatua agertu.

Entziklopediak ordenagailuz egindako harri puskak dira; liburu hau bihotzarekin eginda dago, eta lore bat izan nahi luke zuen memorian.